

Bilbon, 1997ko azaroaren 28an

FEDERIKO KRUTWIG EUSKALTZAINARI OMENALDIA

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko Egoitzan, arratsaldeko lau eta erdietan eman zaio hasiera Federiko Krutwig Euskaltzainaren omenezko batzar irekiari, honako jaun-andre hauek batzarrean direla: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, E. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, X. Diharce, X. Kintana, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, A. Urrutia eta L. Villasante, euskaltzainak eta P. Pujana, euskaltzain ohorezkoa.

Euskaltzain urgazleetatik honako hauek: X. Altzibar, A. Arejita, R. Badiola, L. Baraiazarra, F. Barrenengoa, A. Eguzkitza, S. Garcia Trujillo, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, A. Iñigo, J. L. Lizundia, K. Rotaetxe, M.M. Ruiz Urrestarazu, P. Uriarren eta J. J. Zearreta.

Bildutako gainontzeko adiskide, kazetari eta lagunen artean aurkitzen dira, besteak beste, Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kultura foru diputatua.

Mahaiburuan Euskaltzainburua eseri da, zuzendaritza kideak lagun dituela. Omen-dua ere mahaian eseri da.

Lehenbizi, J. Haritschelhar euskaltzainburuak hartu du hitza omenaldiaren zertzeladak argituz eta omenduaren lana eta merezimenduak azalduz.

Ondoren, Euskaltzaindiaren domina urreztatua eskaini dio F. Krutwig jaunari bere merezimenduen eta euskaltzaindian betetako berrogeita hamar urteetako lanaren aitopen gisa. Dominarekin batera, euskaltzainburuak Iker saileko 10. alea osatzen duen *Federiko Krutwigi omenaldia* izenburupean euskaltzain lagunek osatu duten omenaldi-liburukiaren ale berezi bat eskaini dio omenduari.

Azkenik Krutwig jaunak berak erantzun-hitzaldia egin du, eskerrak emanez eta akademien lana nola ikusten duen azalduz eta, bereziki gurea bezalako herri txiki batean Akademiak izan dezakeen zereginaz.

Eta besterik gabe, arratsaldeko bost eta erdietan amaitutzat eman da ekitaldi akademikoa.